
Eder baliz, on ez eiliz Euskaldunok hizkuntzarekin ditugun maitasun/gorroto harremanez

PATXI GOENAGA

1. Errefrau zaharra aitzakia

«Fuese hermosa y no buena» modura itzultzen du Garibaik izenburuan jarri dudana esaldia. Ezkontzan bertuteak baino areago edertasuna bilatzen dutenei egiten die erreferentzia, omen. Errefrau zahar honekin hasi nahi nuke nire jardun hau. Ongi datorkigukeelakoan. Baina ez gara euskara zaharraz ariko, gaurko kontuez baizik, euskaldunok geure hizkuntzarekin dugun maitasun/gorroto harremanaz nolabait. Gogora ditzagun gure poetaren hitzak:

Ezein ere lengoajerik
ez frantsesa ez berzerik
orai ez da erideiten
euskararen parerik.
Heuskara,
jalgi hadi dantzara!

Harro agertzen gara maiz euskaldunok geure hizkuntzaz, munduko hizkuntza ederrena dela iritzita. Harro, halaber, gure hizkuntza gaixoa Interneteko zeruan ez dakit zenbatgarren ‘gradora’ igoa aurkitzen delako eta abar. Batzuetan, ordea, esaten direnek ez digute asko laguntzen. Dantzarako gogo gutxi ematen digute.

2. Euskara konplexuegia delako ustea

Euskaldun askok ez diote ontasun handirik aurkitzen hizkuntzari. Hori bai, munduko hizkuntzarik ederrena dela aldarrikatuko dute, euskararen edertasunaz liluratuta edo. Ez dira fido, nonbait, hizkuntzak duen ontasunaz: hizkuntzaren ona eta ederra ezin uztarturik dabilta. Edertasuna zer datekeen definitzen ez guke berehalakoan asmatuko. Baina euskara ere, beste hizkuntza guztiak bezalaxe ‘artefakto’ ederra da eta denak liluratuta gauzka haren ederrak. Baina ematen du bost axola zaiela haren bertutea eta ontasuna. Ez dute aski on ikusten gaurko bizimodurako, hizkuntza lantzea, erabiltzea eta nork bere burua trebatzea, oraindik ere askorentzat gehiegi da. Kontenplatzeko zerbait bai, baina eguneroko bizitzan erabiltzeko egin behar den ahalegina gehiegizkoa nonbait eta askorentzat sinbolo bat besterik ez denez, hor gelditzen da: sinbolo bat. «Ongi

dago, haurrei erakutsi egin behar zaie, behar den dirua gastatu behar da eta abar...». Baina hori dena besteri dagokio.

Jarrera eroso horri aurre egin beharrean, batzuek aurkitu dute aitzakia polita, euskara zaila dela, konplikatuegia, gaztelania edo ingelesa dagoen lekuan, euskara bezalako hizkuntza zahar bat (Europako zaharrena omen) maite bai, baina gure bizitzaren parte eta partaide izatea... hori asko-txo da. Mito batzuk eraiki ditugu eta koartada ederra eskaintzen diegu euskarari gure eguneroko bizitza arruntan eta profesionalean ere zirrikiturik ez eskaintzeko. Interneten ditugun webgune, wikipedia eta enparauetan sartzea aski da, serio-serio zabaltzen diren hainbat sinplekeria aurkitzeko. Oharkabean ontzat ematen ditugu, gainera.

3. Determinatzaile Sintagmen barneko egituraz

Behin honez gero, Larramendi handiarekin gogoratzea ezinbestekoa gertatzen da. *El imposible vencido* ospetsuan honela aurre egiten die arerioei:

«Otra objecion hacen contra el bascuete; porque en esta lengua todo se ha de construir al revés, por la posposición que tiene de artículos, v.gr. *ur garbi-á, burú uts-á* se han de construir *agua clara la, cabeza vana la*. Qué simpleza! Y de dónde te consta que esa construccion es al revés? Y mas si doy yo en decir que va al revés tu construccion castellana? Sabes? Los hebreos escriben el renglon tirándole de la mano derecha á la izquierda, y tú le tiras de la izquierda á la derecha: y quién escribe al revés? Según ese reparo se habrán de desterrar del latin el *que, ve, ne* y otros adverbios y aun toda su sintáxis. Y sino construye esta oracion: *semper enim hic homo leones inter, ursosque commoratus est*: mira que donosura, siempre por que este hombre leones entre osos y vivido ha. Pero yo hago mal en cansarme en estas puerilidades. *Goazén emendic.*» (Manuel de Larramendi, *El imposible vencido*, 1853, 7 orr.)

Hizkuntza baten konplexutasuna nola neur daitekeen jakitea ez da erraza. Gertakarien berri ematerakoan, azalpenak berak ere izan daitezke konplexuagoak azaldu nahi dena baino. Uste izatekoa da, hala ere, hizkuntza guztiak, giza pentsamentuaren eta beraz, burmuinaren fruitu diren aldetik, konplexutasun dezente izan dezaketela.


Determinatzaile sintagmaren egitura bera ere konplexua da, baina gure inguruko hizkuntzetan behintzat DS modu bertsuan osatua dagoela esango nuke. Egitura horren osagaiak berdintsuak izango dira, hitzak erabat diferenteak izanik ere. Osagai horien kokagunea, ordena, berezia izan liteke. Gure inguruan ditugun hizkuntza erromanikoak, gaztelania eta frantsesa adibidez, hartzen baditugu, elkarren antzekoak dira. Horiekin alderatuta, euskara 'gutziz desberdina' da jendearen ustetan. Batzuen arabera, gainera, indar komunikatibo desberdina dute era bateko hurrenkerak eta beste batekoak. Aldera ditzagun honako hitz multzoak:

- (1) a. gure haurren eskolako irakasleak
- b. los profesores de la escuela de nuestros niños...
- c. les professeurs de l'école de nos enfants...

Hitz segida hauek alderatuz gero, hizkuntza horiek ezagutzen dituenak erraz antzemango dio, frantsesa eta gaztelania bide batetik doazela eta euskara bestetik. Sintagmaren konplexutasunari dagokionez, ordea, elkarren paretsu joko ditu, seguru asko:

(2)	gaztelania	(1) <i>lo-s</i>	(2) <i>profesor-es</i>	(3) <i>de</i>	(4) <i>la</i>	(5) <i>escuela</i>	(6) <i>de</i>	(7) <i>nuestro-s</i>	(8) <i>niño-s</i>
	frantsesa	(1) <i>le-s</i>	(2) <i>professeur-s</i>	(3) <i>de</i>	(4) <i>l'</i>	(5) <i>école</i>	(6) <i>de</i>	(7) <i>no-s</i>	(8) <i>enfant-s</i>
	euskara	(7) <i>gu-re</i>	(8) <i>haur-</i>	(8') <i>(-ak)</i>	(3) <i>-en</i>	(5) <i>eskola</i>	(6) <i>-ko</i>	(2) <i>irakasle</i>	(1) <i>-a-k</i>

Arbola bidez irudikatzen badugu, are argiago oraindik:¹



Osagaien hurrenkera guztiz alderantzizkoa izan arren, elkarren ispilu-irudi bat funtsean, (3b)-koegitura (3a)-koa baino konplexuagoa denik ezin esan. Jakina, hizkuntza ikasi nahi duenak desberdintasun honen berri jasoko du eta horretaz ohartuko da. Agian sufritu ere egin beharko du pixka bat. Hala ere, garbi dago bi egituren konplexutasuna antzekoa dela. Hala behar du. Espainolez mintzo denari, hala ere, frantsesa hurbilago egingo zaio euskara baino, hizkuntzen arteko ‘aldea’ desberdina baita.

Hizkuntzei kanpotik begiraturaz gero, alde handiak daude, bistan da, baina barnea arakutzen denean, gauzak bestela ikusten dira.

Gaur gure artean badira euskara ‘egokitzen’ saiatzen direnak. Adibidez, komunikazioa errazte aldera, aditzak azkenerako utzi gabe aurreratzea proposatzen du zenbaitek. Postposizioen kokagunea ere aldatzea proposatzen dute beste batzuek, postposizioak preposizio bihurtuz. Ez diet etorkizun handirik ikusten euskara ‘egokitu’ horren apostoluei. Jolas bezala ere ariketa horiek ez dute asko balio, nire ustez. Salabururen lanean aski argi gelditzen da kontua, Jesus Rubiori ematen dion errepassoan (Salaburu 2002, 183-187 orr.).

Perpau erlatiboak ere arazotsu gertatzen dira batzuetan. Erlatibo murrizgarri deitzen direnak batez ere. Maiz, ordea, arazo faltsuak besterik ez dira. Amurizak (2010: 36) esate baterako ‘soluzio gabeko kasuak’ biltzen dituen atal batean holako zenbait erlatibo biltzen ditu. Adibidez, *Una persona con la que has vivido tantos años no puede ser ajena a tu vida* adierazteko modu egokia

¹ Ohar gaitzen, bide batez, sintagma hauen osagaietan zenbat aldiz markatzen den plurala (-s) artikularen, izenaren eta adjektiboen artean numero komuntadura markatuz. Euskaraz hainbeste bider hori markatu beharrik ez da.

honako hau izan omen liteke: *Hainbeste urtetan bizi izan zaren pertsonarekin ezin zara haserretu orain*. Nire ustez, balio izan dezake, Amurizak gustuko ez badu ere: «soluzio hori neketsu eta erregugarri gertatu ohi da azkenerako» dio. Izenordain erresuntiboak erabiltzea ere izan liteke soluzioa. Nik neuk, hala ere, ez nituzke baztertuko gainerako bideak ere. Esate baterako, *Hay personas de quienes no consigues saber más de lo que preguntas* perpausari erraz eman dakioke buelta, erregatu gabe ere. Adibidez: *pertsona batzuei buruz ezin da jakin galdetzen duzuna baino gehiago*, sintagmari buelta emanda.

Teorian erlatiboak adjektiboak bezalaxe, *ad infinitum* txerta liezke determinatzaile sintagmetan, baina edozeinek daki, adibidez, kopuru batetik gora, informazioa prozesatzea ezina gertatzen dela eta sintagma guztiek mugak izaten dituztela. Horretarako, saihezbideak beharrezko izaten dira askotan. Adibidez, euskaraz zilegi dira *nork idatzitako liburuak erre dituzte?* modukoak. Gaztelaniaz zuzen-zuzen ezin eman perpaus horiek, itzulinguru baten bidez ez bada. Adibidez, honela: *quién escribió los libros que han quemado*, atzekoz aurrera alegia. Eta zein da konplexuago, euskara ala erdara? Hizkuntzek baliabide desberdinak erabiltzen dituzte. Azken kasu honetan euskaraz bi modutara esan daiteke: a) *nork idatzitako liburuak erre dituzte?* / b) *nork idatzi zituen erre dituzten liburuak?* Gaztelaniaz modu bakarra dago, bigarrena.

4. Aditzaren konplexutasuna

Euskal aditzak ere konplexutasun pixka bat badu, ezin uka. Baina ez nuke esango beste hizkuntza batzuetakoa baino askoz konplexuagoa denik. Are gutxiago onartuko nuke euskal aditzaren ustezko konplexutasuna mamu gisa erabiltzea ikasleak izutzeko. Izan ere tresna konplexuak erabili beharrak, maiz, atzera botatzen ditu tresna horren balizko erabiltzaileak. Honek esan nahi du artefakto konplexuak erabiltzen irakasteko orduan pedagogia pixka bat behar dela. Ematen den informazioa neurtu beharra dago. Zer esan honako baieztapen hauetaz? Honela aurkezten du Wikipediak euskal aditza:

«El **verbo** es una de las **partes más complejas** de la **gramática del euskera**. A menudo se presenta como **uno de los retos más difíciles** para quienes aprenden la lengua, y muchos gramáticos vascos dedican la mayoría de sus páginas a listas o tablas de los paradigmas verbales.»

Beste honako hau ere aurkitu dut Interneteko web orriren batean:

«Dentro de la gramática euskera, **el verbo es una de las partes más complejas**. De hecho, quienes **se aventuran a aprender la lengua vasca**, encuentran en la utilización de sus verbos un verdadero **quebradero de cabeza**, y quienes se dedican **profesionalmente** a la investigación de este idioma, suelen centrar sus **estudios gramaticales y lingüísticos en el análisis de los paradigmas verbales**.»

Bi testu hauetan ‘moztu-itsatsi’ deitu ohi dugun eragiketa agerikoa gertatzen bada ere, esaldi bakoitzak eskatuko luke berariazko iruzkin bat. Baina iruzkin handirik gabe ere ongi ulertzen dira: euskal aditza hain da konplexua, non euskara ikastea abentura bat eta buruhauste itzela baita... Ez nago ados, jakina. Ideia horrek alferkeriara bultzatu nahi gintuzke, abenturetatik alde egitera, porrotera hitz batean esateko. Baieztapen biribil eta gehiegizko horiek egiteko ausardia dexente behar dela irizten diot. Zilegi bazait *pro domo* hitz egitea, euskara geure etxea den heinean, konplexutasuna ez da euskararen edo euskal gramatikaren akats bat, hizkuntza berez mekanismo kon-

plexua baita eta gramatikei buruz gehienez ere esan dezakeguna da hizkuntzak eta gramatikak, denak, mota bereko tresnak direla, funtzio bera duten tresnak. Baina denok ‘geurea’ den hizkuntzari ikusten diogu konplexutasun gutxien, geurea baita. Gehiegi kosta gabe ‘geuretu’ dugu gure hizkuntza. Arrazoi beragatik, hizkuntzarik ederrena norberarena izan ohi da. Hortaz, bi sentimentu kontrajarri izango ditugu. Nolanahi ere, geureaz gainera beste hizkuntzak ikasi nahi izan ditugunean azaleratzen dira hizkuntza ‘arrotzaren’ konplexutasunak eta ‘aldatz-gorak’. Euskararen kasuan, geurea izan arren eta txikitan ikasia, eskola faltaz, geure etxeko hizkuntza ere zail egiten zaigu maiz, eta txikitan ikasi dugun geure hizkuntzari ere erraz itsasten diogu hizkuntza konplikatua ‘sanbenittoa’: «euskara munduko hizkuntzarik ederrena da baina izugarri zaila».

Hemen ere, izenburuan ezarri dudan atsotitz horrek dioena aldarrikatzen dute euskararen zenbait maitalek: *eder baliz, on ez eiliz*. Baina euskaldunok beste modu batera eraiki behar genuke esaera: euskara bizikide edo ezkontide nahi badugu, izan bedi ederra (hizkuntza guztiak diren bezala) eta aldi berean, lanerako balio duena, lanean zaildua eta lanerako amorratzen dagoena. Horregatik, zenbaiten baieztapenak axolagabekeria izugarriak iruditzen zaizkit. Euskara irakasten saiatzen direnei konplexutasun horiek behar bezala neurtu eta gainditzen lagundu behar genieke euskararen normalkuntzarekin zerikusia izan genezakeen guztiok. Egia esan behar da eta ez sartu inori neurritz kanpoko beldurrik. Konplexutasunean indar eginez, azkenean konplexua geuk izango dugu geure lepoan.

Saia gaitzen ulertzen zertan datzan euskal aditzaren konplexutasun hori. Horretan hasi orduko, Patxi Altuna irakasle zorrotz eta finaz gogoratu nahi nuke. Hark eman baitzidan, ikasle nintzen garai haietan, euskara irakasle izateko aukera eta eginkizun horretarako gogoia ere. *Euskara hire laguna* izeneko liburuxkari zenbat buelta eman ote genizkion garai haietan ikasle-irakasleok. Kontua da neure bizitzan inoiz jaso dudan leziorik laburrena eta probetxugarriena berak eman zidala, aparte hartuta, ‘eskola partikular’ gisa edo. Euskal aditzaren paradigmek eta hauen erabilerak sortzen zidaten ezinegona agertu nion noizbait. Neu ere ilunpetan bezala bainenbilen ordu arte. Baina ordu laurden nahikoa izan zuen aditzaren ‘misterioak’ eta korapilo nagusiak argitzeko. Pare bat urte geroago edo, bere liburuxka didaktiko eta argian (Altuna, P. (1971)) azalduko zuen doktrina bera zen funtsean: ‘jokabide soila’ deitzen duenetik, indikatibotik alegia, abiatu eta «hau ikasiz gero, besteak arras erraz dira» liburuaren hasiera-hasieran dioen bezala.

Aditz guztiek eskema bera jarraitzen dute funtsean. Eredutzat DA/ DU adizkiak har ditza-kegu, sinpleenak, konplikazio gutxien dutenak:

- (4) a. benetan ikusgarria [DA]; ez [DUZU] itxura txarrik...
b. berandu [etorri DA]; non [izango DA] bilkura?

Arestian aipatutako Altunaren irakats-saio hartan mapa batean zehar bidaltzen ninduela iruditzen zitzaidan. Lehenbizi eskatzen zidan ezaguna izan nezakeen adizki ‘erraz’ bat: *erosi duzu/du*, adibidez. Hau ondo zehaztu eta identifikatu ondoren, *duzu* laguntzailearekin erlazio morfologiko argia zuen beste adizki bat eskatzen zidan, konplexuagoa baina ‘arrunta’: ‘*zuk hura erosi d-u-zu*’-ren orde, ‘*guk hura erosi d-u-gu*’. Eta honen orde, iraganaldiko forma, bai batean bai bestean: *guk hura erosi genuen*, *nik hura erosi nuen*... eta abar. Gero hauetatik *diru aski ba-gen-u*, *diru aski ba-n-u*... *erosiko gen-u-ke*, *erosiko n-u-ke*.

Eta hauetatik, ‘ahal izatea’ adierazi nahi izanez gero?: *eros d-eza-ke -gu* (cf. *erosi d-u-gu*). Eta hemendik *eros d-eza-ke-t* (cf. *erosi d-u-t*), eta hemendik zergatik ez, *eros nezake* (cf. *erosiko nuke*)? Eman *diozu* adizkia ezagutuz gero, egokitzapen xume batzuk egin, eta prest oraingoan ere: eman

diezaiogun (*d-i-eza-io-gu-n*). Aginterazkoak txiki-txikitatik ikasten ditugu: *utzi zazu, emaitzu, al-txa zaitez* modukoak noiz ikasten ditugu? Bada, hauek jakinda zer kostatzen da *utz(i) ezazu, eman zaitzu > eman iezaiozu* eta forma berriak ikastea? Eta hemendik, antzara-jokoan bezala, adizki desberdinak osatuz joan gitezke.

Dena dela, ‘bisitatu’ dugun adizki bakoitzari bere ‘lekua’ bilatu behar zaio mapan. Baina mapak egin behar du izan, osatu beharra dago: batetik, *EDIN/ *EZAN laguntzaileak gehitu behar dizkiogu eta bestetik -(TE)KE morfemari ere leku egin beharko diogu. Hortaz, goiko adibideei-beste batzuk gehitzen ahal dizkiegu:

- (5) a. ondo [LEGOKE]; ez [DAKIGU]ezer...
 b. bihar [joanLITEKE]; zerbait [eska DEZAKET]

(4)ko adibideei eta (5)ekoei leku egin behar genieke adiztegiko ‘mapan’.

(6)	orainaldia	lehenaldia	balizkoa
	DA/DU -DADI/-DEZA	ZEN/ZUEN ZEDIN/ZEZAN	Ba-LITZ/ ba-LU -LEDI/-LEZA
	DATEKE/DUKE DAITEKE/DEZAKE	ZATEKEEN/ZUKEEN ZITEKEEN/ZEZAKEEN	LITZATEKE/LUKE LITEKE/LEZAKE

Eskema honek, bere soiltasunean badu konplexutasun pixka bat ere, baina gaztelaniazko ordainek dutena baino handiagoa? Ez dut uste. Irregularitasunak ere bi hizkuntzetan gertatzen dira. Bestalde, gaztelaniak teoriarik beharko zituzkeen SER/HABER laguntzaileetatik bat bazter utzi zuen: *hemos llegado/hemos dicho*. Frantsesez ez: *nous sommes arrivés/nous avons fait*. Gaztelaniaz (frantsesez ez bezala, hain zuzen), aditza trantsitiboa izan nahiz izan ez, laguntzailea bakarra da: HABER alegia. Konplexutasunaren aldetik, gaztelania sinpleagoa litzateke, bi laguntzaile erabili beharrean bakarra baitu: *he venido* (intr.)/*he comido* (tr.) vs *etorri naiz* (intr.); *jan/bazkaldu dut* (tr.)... Puntu honetan euskal aditza konplexuagoa da, beharbada, laguntzailea aditz nagusiaren eta honen argumentu egituraren arabera hautatu behar baita. Gaztelaniaz horren premiarik ez da, baina, nahasiagoa ere gerta daiteke, hizkuntza askotan (urrutiago joan gabe, frantsesez) egiten den bereizketa ez baitu egiten. Kontua da batean irabazten dena bestean galdu egiten dela. Baina frantsesa bera baino konplexuago ere bada euskara, ‘subjuntiborako’ eta ‘potenzialerako’ ere beste aditz laguntzaile batzuk (*EZAN/ *EDIN) ere bai baititu euskara batuak. Hots: IZAN/EDUN alde batetik eta EDIN/EZAN bestetik.

Aditz batzuk laguntzaile gisa bakarrik erabil daitezke: *EDIN eta *EZAN (*isil GAITEZEN; ez GENEZAKE ezer esan...*). Dena dela, adizki guztiak eskema berean sar daitezke: ‘trokel’ bertsuaren arabera osatuak dira. (6)-ko eskema hori hirukoitza da. Baina beste zerbait ere gogoan izan behar da. Izan ere, adizki analitikoak osatzeko aditz ‘jokatugabe’ bati laguntzaile bat itsasten zaio: {*etorri/etortzen/etorriko*} + *da* > *etorri da / etortzen da / etorriko da*. Aditz nagusia erro soila ere izan daiteke: *etor, ekar, ibil...* Baina hauek *EDIN/*EZAN laguntzailea eskatzen dute: *etor dadin, ekar dezaten* (ez, **etorriko dadin/ *etortzen daiteke...*). *Etor dadin, eros dezakegu* moduko adizkietan aspektu markarik ez da, beraz aspektugabeak dira. Baina adizki sintetikoak ere (*dator/dakar...*) aspektu markarik gabeak dira. Hortaz, *ETOR DADILA / DATORRELA, ETOR DAITEKE/DATORKE...*denak aspektu markarik gabeak dira, formalki behintzat. Diferentzia bakarra da adizki sintetikoetan aditz erroa adizkiaren barnean txertatua ageri dela: *da-TOR,*

da-RAMA-gu. Aldiz *EDIN/*EZAN laguntzaileak laguntzailearen ezker aldean, kanpoaldean kokatuak joango lirateke: *ETOR naiteke, ERAMAN dezaket, ESAN dezagun...* Gaztelaniarekin alderatuz gero, konplexutasunari begira, hemen ‘indikatioan’ ez bezala berriz ere forma sintetikoetara hurbiltzen dira gure euskal adizkiak: aspektu markarik gabeak baitira *daramagu, eraman dezaket, esan dezagun*. Eta euskararen eta gaztelaniaren arteko aldea oraingoan murriztu egiten dela esan genezake.

Hortaz, honela eman liteke aditz jokoaren oinarritzko mapa, nolabait esateko. Adizki jokatuak dira konplexutasun handiena dutenak. Bi modutakoak ditugu: a) *sintetikoak* hitz bakarrean ematen dira (*d-a//d-a-to-z-ki-t//d-u-te...*) eta b) *analitikoak*, laguntzaile gisa beste adizki jokatu bat hartzen dutenak (*etorriko+ d-a; izan + z-ir-e-n; lagundu+ d-i-egu...*). Hots:

(7)	Sintetikoak (= hitz bakarreko adizkiak)	da; datozkit; dute; zenuten,...
	Analitikoak (= aditz jokatuak + laguntzaile jokatuak)	joan nadin; ekar dezaket {ekarri/ ekartzen...} dut ekarriko nuke...

Adizki analitikoetan laguntzaile lanetan ari daitezkeen aditzak ez dira asko: *IZAN (etorri DA, ibili ZEN, ibili GINEN, joango LITZATEKE...)* eta *EDUN (*ikusi DU, jan GENUEN, jakin BALU...*). Adizki sintetiko gisa ere erabiltzen dira aditzok: *astirik ez DUT; nahikoa GENUEN; buru pixka bat BALU...ederra DA, politikak ZIREN...* Adizki analitikoaren eraketan ere parte har dezakete bai aditz jokatu bezala, bai laguntzaile gisa: *han izan nintzen; lagunak izango bagina... buru pixka bat izan balu; beti izaten zuen aitzakiaren bat...*

Badira, ordea, beste aditz batzuk laguntzaile gisa bakarrik erabiltzen ahal direnak: *EZAN, *EDIN dira nagusiak: *joan + DADIN; esan + DIEZAION...*

(8)	soilik laguntzaile	*EZAN, *EDIN
	Analitikoak (= ad. jokatuak + ad. laguntzaile jokatuak)	EKAR dezaket/ EKARRI dut/ EKARTZEN dut/ EKARRIKO nuke

Forma sintetikoak duten aditzak ere apur batzuk baino ez dira: *egon, etorri, ibili, joan* eta beste bakarren batzuk, tartean ‘defektibotzat’ edo har litezkeenak: *erion, etzan, jarraiki* bereziki. Iragankorrak gehiago dira baina hauek ere urriak: *eduki, ekarri, erabili, eraman, eroan, *io, jakin* bereziki, eta *entzun, iritzi, erran, ezagutu, ihardun, iharduki, ikusi, iraun, irudi*, defektibotzat har litezkeenak seguru asko.

5. Moduaz, aldiaz, eta aspektuaz

Adizki jokatuak biltzen den informazioa aditz *erroari* dagokiona da batetik. Aditz bakoitzaren eduki lexikoa honek ematen du: *dator/ etorri da* diogunean -TOR- erroa ageri da, *etorri* aditzaz ari baikara. Eta *dakar/ekarriko zuen* adizkietan berriz -KAR- erroa dugu. Oraingoan *ekarri* aditzaz ari gara, noski.

Erroaz gainera, *aspektuari*, *moduari* eta *aldari* dagozkion *flexio* markak biltzen dira adizki bakoitzean. Eta perpauseko *subjektu* eta *objektu* gisa parte hartzen duten sintagmekiko *komunztadura* ere bai.

Adizki sintetikoetan ez dago aspektu markarik. Alegia, *dena DAKI* edo *berehala NATOR* diogunean, aspektu markarik gabeko adizkien aurrean gaude. Aldiz, *egunero etortzen da* edo *ongi ikasi duzu* diogunean, lehenbizikoak *aspektu burutugabea* adierazten du, bigarrenak, *aspektu burutua*. Baina *etortzen* eta *ikasi*-ren parean *ikasiko* (<*ikas-i-ko*)/*etorriko* (< *etorr-i-ko*) ere hor ditugu. Eta inolako aspektu markarik ez dutenak ere baditugu: *ikas* eta *etor* adibidez. Hortaz, *lau aukera* ditugu aspektuari dagokionez: a) aspektu gabea; b) burutua; c) ez-burutua eta d) burutzekoa.

(9)

aspektua	aditz erroa	modua	aldia		
			[+oraina, -iragana] 'orainaldia'	[+iragan, -oraina] 'iraganaldia'	[-oraina -iragana] 'balizkoa'
aspekurik ez	-IZA- -TOR-	-KE	DA DATOR	ZEN ZETORREN	-LITZ -LETOR
		+KE	DATEKE DATORKE	ZATEKEEN ZETORKEEN	LITZATEKE LETORKE
	IZAN ETOR	-KE	DADI- DEZA-	ZEDIN ZEZAN	LEDI- LEZAN
		+KE	DAITEKE DEZAKE	ZITEKEEN ZEZAKEEN	LITEKE LEZAKE
[+burutua]	ETORRI IZAN EKARRI *EDUN	-KE	DA DU	ZEN ZUEN	ba-LITZ ba-LU
[-burutua]	ETORTZEN IZATEN ₁ EKARTZEN IZATEN ₂	+KE	DATEKE DUKE	ZATEKEEN ZUKEEN	LITZATEKE LUKE
'burutzekoa'	ETORRIKO IZANGO EKARRIKO IZANGO				

Modu horretan aurkezten ditu, funtsean, adizkiok Euskaltzaindiaren *EGLU II*-k. NEN-TORREN/ba-NENTOR// ZETORREN/ba-LETOR... adizki 'bixkiak' dira, nolabait esateko. Ezagun dute aurpegian, morfologian, alegia: lehen pertsonaz (NI) ari garelarik N- agertuko zaigu bai *iraganean* bai *balizkoan*. Hirugarren pertsonaz ari bagara, berriz, ø 'agertuko' da pertsona-komunztadura marka gisa. Baina batean -EN agertzen den bitartean, besteetan ez da holakorik ageri. Modu berean, ZEN/ba-LITZ// ZIREN/ba-LIRA adizkiak.

Zetorren, nentorren, zen, ziren iraganeko formak dira: *letor, banentor, balitz, balira...* ez dira orainaldikoak ez eta ere iraganaldikoak. Erraz onar daitezke honako esaldi hauek: *bihar baletor, serioagoak balira...* beste hauek, berriz, nekez: **joan den urtean baletor, *lehenago serioak balira*. Hauen aldi-balioa gorabehera, EGLU-n 'alegiakotzat' ematen dira. 'Supositibo' deitura ere erabili izan da noizpait gure gramatiketan. Inoiz pentsatu dut 'menturazko' ere erabil litekeela. Edo, behar bada, 'balizko' balioa duela esan genezake. Horregatik, azkenean termino honen alde egingo dut (cf. *Balizko oleak burdiarik ez*). Balizko kontuez dihardugunean erabiltzen ditugu, izan ere. Uste dut azken batean *alegiatzko* baino egokiago dela *balizko* hau. Hortaz, aspektuari dagokionez lau aukera eman diren bezala, aldiari buruz bereizketa hirukoa da. Alegia, *hiru aldi* izango genituzke.

Bestalde, forma beretan oinarri hartuta bestelako adizki batzuk 'atera' ditzakegu. Bereziki, hor goiko hirukote horri -(TE)KE morfema erantsirik ahalezkoak edo geroaldiko formak sortzen zaizkigu:

- (10) a) da --> dateke/ dator --> datorke/ daki --> dakike...
 b) zen --> zatekeen// zetorren --> zetorkeen/ zekien ---> zekikeen
 c) litz --> litzateke// letor --> letorke// litz ---> litzateke

Ezarri ditugun taula hauek laburbiltzen ahal dute adizki sintetikoen jokoa. Morfologiari begira, bi multzo nagusi ditugu: DA/DU saila lehenbizi, orainaldiari dagokiona. Honen ezaugarri morfologikoak begien bistan ditugu: irregulartasun batzuk gorabehera, denetan elementu berak aurkitzen ditugu. IZAN-en irregulartasuna nahikoa nabarmena da, nolana ere. Normala, horixe baita maiztasun handiena duen aditza, corpusen azterketa arrunt batek bistaratzen ahal duen bezala. Erabiliena bera da eta erabiliena izaki, ez da harritzekoa historian zehar aldaketa zenbait jasan izana. Eredu gisa jarri dugun etorri aditzak ongi erakusten dunola osatua den: IZAN eta *EDUN-en kasuan erroa, esate baterako, askoz itxuraldatuago dagoela ematen du. Dena dela, hauek ere 'gordetzen' dute nolabait adizki guztien taxu bera.

Eskema berean sartzen ahal ditugu adizki jokatu guztiak, sintetikoak nahiz analitikoak.

Adizki hauei erreparatzen badiegu, irregulartasun batzuk gorabehera, erraz ikusten ahal da nola osatuak dauden. Adibidez, ETORRI edo EGON aditzaren kasuan, orainaldian, -TOR- / -GO- erroa ageri-agerikoa da: dator < da-TOR; nator < na-TOR; hator < ha-TOR; gator < ga-TO-Z; dago < da-GO; nago < na-GO. IZAN aditzaren kasuan gauza ez dago hain agerian: da < da-ø; naiz < na-IZ; haiz < ha-IZ, haiz < ha-IZ, baina gara < ga-RA, zara < za...

*EDIN/ *EZAN laguntzaileek ere kontraste bertsuak erakusten dituzte egiturari dagokionez. Hirugarren pertsona singularra hartzen badugu kontuan:²

hori gerta da-di-n	hori gerta ze-di-n	hori gerta ba-le-di-ai-ledi gerta ²
hori egin de-za-n	hori egin Ze-za-n	hori egin ba-Le-za-ai-LEZA egin
hori gerta da-i-teke	hori gerta ZI-teke-en	hori gerta LI-teke
hori esan de-za-ke	hori esan ze-za-ke-en	hori esan le-za-ke

² *ailedi/ aileza* forma zaharkituak dira baina idazleen eskura daudeke betiere.

Hortaz, euskal aditz laguntzaileak ere betetzen du aditz sintetikoaren funtsezko egitura, sintetikoak baitira laguntzaile direnean ere.

Jakina, eskema honek badu bere konplexutasuna, baina adizki guztiek eskema berari erantzuten diote. Horretan jarri behar lukete arreta euskara ikasleek eta irakasleek. Eta mamuak uxatu.

Morfologiari dagokionez, aditz jokoaren konplexutasuna gaztelaniaz eta euskaraz aski parekoa dela esango nuke. Hala ere, euskaraz badu alde on bat: sintetiko gisa jokatzaren duten aditzak gutxi batzuk besterik ez dira, laguntzaileak barne. Aldiz, nolabait gure adizki sintetiko urrien aldean (*nator, daki, dabilta, daramagu...*) askoz gehiago dira gaztelaniazkoak, hemen aditz guztiek joka baitezakete nolabait ‘sintetiko’ gisa (*vengo, sabe, andan, anduvimos, llevamos, lleve, creciron, dijera, compraríamos...*) euskaraz ez bezala (*hazi ziren, esango banu, erosiko genuke...*), non aditz gehienek ez duten joko sintetikorik.

Gaztelaniazko gramatiken arabera, aditz morfologian erroa eta desinentzia bereizten dira. Euskaraz ez dugu desinentziaz hitz egiten, hitzaren ‘amaiera’ baita ‘desinentzia’ hori, adizkiaren eskuin muturrean doana. Euskaraz adizkion atalkatzea egiten dugunean, erroa ez doa hasieran, erdian doa nolabait. Hortaz, desinentziaz ez hitz egiteak badu arrazoia. *Caminábamos* aditzaren erroa *camín-* bada, honi erantzen zaiona da desinentzia: *camínábamos* < *camín-avt-batm-mospn*. Desinentzia honetan biltzen da aditz jokatuaren flexioari buruzko informazioa: a) *vt* ‘bokal tematikoa’: *caminar* aditzaren kasuan, -a, *temer*-n kasuan, -e, *servir*-enean, -i; b) *tm* ‘denbora eta modua’; *pn* ‘pertsona eta numeroa’. (RAE 4. atala)

Konplexutasunaren aldetik, *camínábamos* aditzaren analisiak ez dio enbidia handirik euskal aditz jokatuari eskaini ohi diegun analisiari. Ingelesarenak ere ez, bere sotiltasunean. Euskaraz bokal tematikorik ez denez, edozein aditzek berdin balio digu, baldin eta jokabide sintetikoa onartzen badu. Har dezagun, esaterako, *ibili* aditzaren forma bat: *genbiltzan* < *g-en-bil-tza-n*. Adizki honen atalkatzea eginez gero, euskal aditzak gaztelaniazkoak baino atal bat gehiago duela ohar-tuko gara: *g1-en2-bil3-tza4-n5*. Izan ere, gaztelaniazko *camínábamos* aditzean bertan ere, morfema bera bikoitza da: *-mos*-ek pertsona eta numeroa ‘biltzen’ ditu. *-ba-* morfemak ere denbora eta modua (eta aspektua) ‘biltzen’ dituen bezala. Elkarren parekotzat har litezke, dena dela, nahiz eta hemen ere euskaraz ‘alderantzizko’ hurrenkerara behartzen gaituen. ‘Desinentzia’ delako hori, gure kasuan, erroaren ezker-eskuin kokatua ageri da: *g-en-bil-tza-n*. Hori bai diferentzia, baina konplexutasuna, bertsua. Morfemen hurrenkerak eta kokaguneak goian eman dugun sintagmaren kasuan bezala, kontraste bera erakusten dute. Hemen ere, morfemak nonbait kokatu behar direnez eta nahas-mahas ezin direnez ezarri, beren lekua izan behar dute.

Euskaraz aditz jokatuak bi multzotan banatzen direla ikusi dugu: a) *adizki sintetikoak* (*naiz, nator, geundeke...*, *dugu, dakigu, lekarke...*), eta b) *adizki analitikoak*, adizki jokatu batez eta aditz laguntzaile jokatu batez osatuak. Adizki sintetiko tankeran erabiltzen direnak guxi batzuk baino ez dira: hauetako batzuk (*EZAN eta *EDIN) laguntzaile gisa baino ez dira erabiltzen. Gaztelaniaz, aldiz, denak erabiltzen ahal dira aditz ‘soil’ gisa, sintetiko gisa alegia: *veníamos, temisteis, cantaríamos...* nahiz analitiko edo konposatu gisa: *habíamos venido, habéis temido, hubierais cantado, habríamos protestado...* Gainera, aditz hauetako asko irregularrak dira: *caminar* -> *camínasteis* vs *andar* -> *anduvisteis*; *temer* -> *temió* vs *placer* -> *plugo* eta abar. Euskaraz holakorik ez.

EGLU II-k proposatzen duen aditzaren egitura hirukoitz horren jatorri zuzena Allieres-en (1983) proposamena da eta honen azpian Lafitte-rena (1944) dago. Morfologian oinarritua da,

ez semantikan³. Arazoa, batez ere hirugarren zutabeko adizkietan dago. Zer da subjuntiboa, adibidez? Lafittek behin baino gehiagotan aipatzen du bere gramatika ospetsuan halako formak frantsesez subjuntiboa deitzen zaion horren itzulpen direla, baina berariaz ez du subjuntiborik aipatzen euskararentzat. Gogoan dut ikasle aleman batzuk nola etorri zitzaizkidan behin gaztelaniazko ikastaro bati buruz galdezka. Haien kezka nagusia, aitortu zidatenez, gaztelaniazko subjuntiboa ikastea zen. Buruko min handia ematen zien nonbait. Subjuntiboa zer datekeen ez da ulertzen erraza, ez eta zein balio semantiko duen ere. Ez dago garbi euskaraz subjuntiborik baden edo behar ote den ere. EGLU-n ez da jasotzen, EBE-n bai. Alboan gaztelania bezalako hizkuntza bat dugularik, ihes ezin egin diogun kontzeptu bat da subjuntiboa. Euskaraz subjuntibotzat hartzen dira *etor dadin*, *etor dadila*, *egin dezan*, *egin dezala* moduko aditzak. Forma hauek, ordea, [aditza + beste zerbait] ere badira: hor dute eskuinean -en/-ela konplementatzailea *edin/*ezan aditz laguntzaileari itsatsirik. Baina berez, *etor dadila/ egin dezan* eta *etorri dela/ egin duela* bezalakoxeak dira. Diferentzia bakarra aditz laguntzailean eta adizki ‘nagusian’ daukagu: {*etorri/ etorriko/etortzen*} *da/*dadin* vs *etor* {**da/dadin*}. Alegia, *edin/ezan* laguntzaileek aspektu markarik gabeko aditz bati itsasten zaizkio. Aldiz, *ukan/izan*, aspektu marka duenari. Hori morfologian argi dago. Baina honek zer esan nahi du? Aspektu markarik ez duen oro subjuntiboa dela? Ezin hori esan, zeren ahalezko adizkiek ere ezaugarri horixe dute: *etor daiteke* baina {**etorriko/*etortzen/*etorri*} *daiteke*. *Datorrela hurrengo*, *goazen kalera* diogunean eta *etor dadila hurrengo*, *joan gaitezen kalera* diogunean ere berdin. Morfologiaren ikuspegitik ez dago alde handirik *joan gaitezen* eta *goazen*-en artean. Aditz bera dugu. Diferentzia atzizkian dago. Atzizki hau, bistan da perpaus osagarrietan erabiltzen dugun bera da. Hots: Allieres-en ikuspegia zuzena da. Arazoa da ez dakigula zer den juxtu subjuntiboa. Dakigun bakarra da beste hizkuntzetako subjuntibo deituei modu batera edo bestera ordainak aurkitzen ahal dizkiegula, baina ordain horiek ez dira beti bat eta bera izaten.

Horregatik, EGLU II-n paradigmatan ez da jasotzen *subjuntibo* hitza. Dena dela, euskara gaztelaniarekin eta beste hizkuntza askorekin alderatuta, nekez esango dugu besteak baino konplexuago denik alde honetatik. Baina bai, nire gazte alemaniar haien kezka ikusita, subjuntiboaren erabilera ere arazotsua da.

Terminologia ere aski nahasia gertatzen da, euskaraz bakarrik ez, hala ere. -edin- eta -ezan- aditz laguntzaileen gainean eraikitako formei ‘subjektibo’ deitzen die Allières-ek eta *edun/ izan-en gainean eraikiei berriz, ‘objektibo’. Hau ere, beharbada, hankamotz gelditzen da baina bide zuzenagotik doala esango nuke, indikatibo/subjuntibo bereizketa baino. Nolanahi ere, EGLU-ko taulan formen banaketa argia dela uste dut. Baina taula horretako zein ‘laukitan’ kokatu beharko genuke subjuntiboa? Garbi dago lau laguntzaileak adizki jokatu gabe desberdinekin elkartzen direla: erro soila dugunean (*etor/lagun...*) *EDIN eta *EZAN laguntzailea hautatzen dute. Beste hirurek DA/DU. «Mais le problème qui se pose est celui de leur dénomination, car là presque chaque descripteur a créé son propre vocabulaire fondé sur la sémantique (...) la terminologie reste souvent hésitante et mal adaptée parce que toujours plus ou moins rattachée aux usages romans» (Allières 1983: 41). Honen ondorioz, morfologian oinarritutako sailkapena proposatzen du. Eus-

³ Hain zuzen, Allières-ek lanaren hasieran honela dio: «On peut distinguer trois principaux types d’erreurs parmi celles où ces auteurs sont tombés. (...) Seconde fausse manoeuvre: légiférer sur le verbe basque en general en prenant pour base exclusive de référence un système local. Et l’inconvénient d’une telle pratique s’aggrave si vient s’y joindre un autre choix néfaste: celui de définir les divers tiroirs verbaux en termes sémantiques plutôt que morphologiques. En effet, comme le même type de formation peut revêtir selon les régions des valeurs et des fonctions différentes, on perd de vue le lien qui unit morphologiquement les divers systèmes locaux en un ensemble à peu près homogène partout, compte tenu des particularités d’usage ou des phénomènes de supplétion propres à chaque localité ou ensemble dialectal.

kaltzaindiaren paradigmek ere bide horri segitu beharko liokete. Gaztelaniazko sistemak ez digu asko laguntzen. ‘Subjuntibo’ deitura horrekin ezagutzen ditugun aditzak ez dira mota berekoak euskaraz eta gaztelaniaz. Hona hemen adibide batzuk, non euskarak eta gaztelaniak gehienetan bat egiten ez duten:

- (6) a. No conozco a nadie que *haya leído* ese libro.
 a’. Ez dut liburu hori *irakurri duen* inor ezagutzen
 b. Pocos alumnos habrá *que hayan aprobado*.
 b’. Ikasle gutxi izango dira *gainditu dutenak*.
 c. Se necesita secretario *que sepa* inglés.
 c’. Inglesez *dakien* idazkari bat behar da.
 d. La próxima vez *que venga*, te haré una visita.
 d’. Hurrena *natorrenean*, bisita bat egingo dizut.
 e. Si *hubiéramos* tenido tiempo, *hubiéramos* ido a visitarte.
 e’. Astia *izan bagenu*, zu ikustera joango ginen.

(ikus Porto Dapena, J. (1991), 240 eta hurr.)

Gauzak horrela, tentu guztiarekin jokatzea erabaki zuten EGLU II-ren egileek. Han egiten zen proposamen bat, badaezpadakoa beharbada, baina bidezkoa, nire ustez. Testu liburuetan ere jasoa izan da (ik. J. Butron & J. De Pedro (1988): 127 eta hurr.), Gramatika Batzordeari baimena eskatuta, gainera.⁴

6. Pertsona/numero komunztadura eta abar

Hona hemen euskal aditzaren egiturari dagokion beste mamua: subjektuaren pertsona-numero komunztadura nahikoa ez, eta objektu zuzenarekin eta zehar-objektuarekin ere komunztadura egin behar. Hizkuntza ikasteko ahaleaginean ari denarentzat zailtasun bat gehiago. Baina ondo pentsatzen jarrita, gure inguruan eta gure artean nagusi eta harro dabilzan beste hizkuntzetan, gaztelaniaz esaterako, antzeko zerbait gertatzen dela esango nuke izenordain klitikoekin. Eta inor ez da asaldatzen horregatik. R.A.E-ko gramatikak orrialde mordoa eskaintzen dio kontu honi. Bestalde, klitiko horiek maiz beharrezkoak dira, R.A.E-k dioen bezala. Hain zuzen, euskaldun askori, ustez dotore-antzean erdaraz mintzo direlarik, ateratzen zaizkie holako batzuk, behar den klitiko ‘irentsiz’. Adibidez: «*Cómprame el periódico*» eskari/agindu edo dena delakoari erantzunez: «*No te he comprado; luego te compraré*» moduko erantzuna aski ohikoa da. Hala ez balitz, RAE-ko gramatikaren egileek ez zuketen honen aipurik egingo.⁵ Dena dela, espainol estandarrean, honela behar luke erantzun horrek: «*No te lo he comprado; luego te lo compraré*». Gaztelaniazko *te-lo-he comprado* hitz-segida eta gure *erosi dizut* aditza (<eros *-i+d-i-zu-t*) gauza

⁴ Harrigarriago egiten da, ordea, aurten bertan, Euskaltzaindiaren «ehuntzea» ospatzeko kaleratu den *Euskara Batuaren Eskuliburuan (EBE)* noizbaiteko aurkezpen zaharrarekin jarraitzea (514-522 orr.) oharrik txikiena ere egin gabe gauzen zergatia azaltzeko. Eta hori, bibliografian, EGLU II oinarriko erreferentzia gisa aipatzen dutelarik.

⁵ «En el español hablado en ciertas zonas de las áreas rioplatenses y andina, así como del País Vasco (España), se elide a menudo el objeto directo de los verbos transitivos sin que ocupe su lugar un pronombre átono. El proceso se registra incluso con grupos nominales de interpretación específica: *Cuando termine la carta llevaré al correo (...)*. La ausencia de pronombre átono en estos contextos parece deberse a la influencia del quechua (...) en el primer caso y a la del euskera, en el segundo» (RAE 2010 657-658). Ez dakit hori datekeen euskaldunen kasuan gertatzen denaren arrazoia, euskaraz klitiko horiek hor segitzen baitute aditzean itsatsirik, ø gisa bada ere: [eramango ø-d-u-t] .

bera ez badira, gutxi falta zaie. Gaztelaniaz ari garenean *te-lo-h-e comprado* gertatzen zaigun bezain arrunta, hain zuzen.

Jakina, erantzuna berehala etorriko zaigu esanaz hor pertsona eta numero informazioa hitz bakarrean ematen zaigula euskaraz eta gaztelaniaz hirutan. Ahoskerak ordea beste zerbait adierazten digu: gaztelaniaz *nóteloh-e /comprado*, modu arruntean emanda. Euskaraz berdin: *eztítut /erosi*. Idazkera alde batetik doa eta ahoskera bestetik. Hortaz, hemen gaztelaniaz eta euskaraz elkarren antz pittin bat badutela esango nuke. Gaztelaniazko izenordain horiek *klitikoak* dira. Eta klitiko horiek, gainera, euskaraz ez bezala, gaztelaniaz erredundanteak gertatzen dira batzuetan: *yo me tomo todos los días un vaso de leche fría* perpausean hiru aldiz jasotzen da lehen pertsonari buruzko informazioa. Objektuari buruzko informaziorik ez da jasotzen, baina batzuetan jaso beharra dago (cf. *‘esos vasos de leche yo me los tomo de un trago, sin respirar’*). Euskaraz hainbestearinoko erredudantziarik ez da gertatzen subjektuari dagokionez behintzat: *egunero baso bat esne hotz hartzen dut* (< $\emptyset^{abs3sg_du_1^{erg1sg}}$). Beraz, hizkuntzen konplexutasunaz ari baldin bagara, ez dago, funtsean hizpide ditugun bi hizkuntzen artean hainbesteko alderik: biak eder, biak on, biak antzeko. Hau oso modu argian erakusten du B. Fernandez-ek (2016: 121-142 orr.). Bide batez, gure hizkuntzalari zuhurrak Wikipediako eta beste hainbat lekutako euskal aditz jokoaren *‘gehiegizko konplexutasunaz’* baino nahiago du *‘euskal aditz inflexioaren izaera sofistikatuaz’* hitz egin. Dotore; bejondeiola!⁶

7. Aditzekin jolasean: *Darabagu, datsegit, bazeniezazkigukete, nirudike, naiozu...*

Lantxo hau amaitzeko ahaleginean, ezin diot uko egin egunotan zabaldu berri den datorren urteko *Araba Euskaraz* festari erantsi dioten goiburua: *Darabagu*. Atsegin dut txantxa, baita hizkuntza bezalako gai serioetan ere. Hizkuntzak eta gramatikak ere txantxarako aukera eman dezakete eta eman behar ligukete. Erratza sudurraren puntan jarrita, tente, metro batzuetan eramatea bezala da: erratzaren funtzioa ez da hori, jakina, baina lurreko zaborrak batu ostean metro batzuk egitea erratzak sudur puntatik ihes egin gabe ez dago gaizki: horregatik ez zaio errespetorik galtzen erratzari. Tresna sofistikatu horrek berez dituen aplikazioak *‘ukitzeke’* gaindi daiteke ariketa. Gure kasuan adizki edo adizki usteko horiek ere ez dute adierazten euskal aditz beneragarriarekiko errespetu falta. Txantxa horrek hizkuntzaren balizko konplexutasuna gaintzeko edo garrantzia kentzeko (!) balio dezakeen neurrian ongi etorria izan bedi. Aditz jokoak gure kirioak lasaitzeko balio badu, ongi etorria, askotan kontra aritzen baikara.

Jar gaitezen serio. *Darabagu* aditz bat da ala aditz tankerako asmazio bat, asmatutako aditz *‘berri’* bat, alegia? Eta zer esan nahi du? Nahi duzuna, edo ezer ez. Fantasia hutsa izan daiteke, euskal adizki peto-petoaren tankera duena.

Goiago aipatu dudan Altunaren liburutxoan, hasiera-hasieratik esaten zitzaigun euskal aditza hiru zutaberen gainean eraikitzen dela: NOR, NORI eta NORK zutaberen gainean. Saia gaitezen aditz hauen arkitektura osatzen hiru zutabe horien gainean. Badakigu, NOR dela ezinbesteko zuta-

⁶ *Bejondeiola* honek ere adizki sintetiko baten itxura guztia du. Euskaltzaindiaren *Hiztegiak* *‘norbaiti zerbait onuragarri desiratzeko esaten zaion esapidea’* dela dio. Euskara-irakasle hasi berri nintzen garaian, egun batez, ikasgelan sartu eta arbelean norbaitek idatzia zuen honako hau: *«Patxi bejondeizula bat da»*. Ez nuen ulertu. Ikasleak, eserita, irribarrez, begirik kendu gabe, arbelari so, etsita. Azkenean, batek erakutsi zidan ikasliburuko hiztegitxo, non *bejondeizula*-ren ordain gisa *‘bravo’* ageri zen. Jakina, ez nien azaldu esapide horren egitura konplexua zein zen. Aski izan zen interjekzio bat zela esatea. Denek barre.

bea eta beste biak komunztadura premien arabera erabiltzen direla. Forma alokutiboak albo batera utziko ditugu.

NOR	NORI	NORK
N-	-IDA- /-IT	-T
H-	-I(K)A-/-IK(-INA-/-IN	-K
d-	-IO-	∅
G-	-IGU-	-GU
Z-	-IZU-	-ZU
Z-	-IZUE-	-ZUE
d-	-IE-	-TE

Zutabe hauen gainean aditz erroa ezarri behar da. Gure *darabagu* horretan D_{NOR} -ARABA-GU $_{\text{NORK}}$ horren erroa RABA edo ARABA bada... hor dugu aditza dagoeneko eratu: D-ARABA-GU. Eta hau daukagun neurrian, balizko D-ARABA-KE-GU, edo D-ARABA-TE, N-ARABA-ZU... Datiboa ere behar bada, D-ARABA-KIO-GU eta antzekoak osa daitezke erraz-erraz. Baina txantxetako adizki horri erroa alda diezaiokegu -RAMA- esaterako eta horrela, benetako aditzetara ere irits gaitezke: *daramat*, *daramate*... *Datsegit* ere txantxetako aditza litzateke. Baina euskal aditzaren zirrikietan barrena trebatzeko egokia izan liteke hau ere. Horra beste adizki ‘fantastiko’ bat.

Eta zer esaten didazue *zeniezazkigukete* adizkiak? «Lekua hartu, mingaina trabatu, burmuina berotu eta komunikazio mailan deus ere gaineratzen ez duena» (Salaburu 2002: 177). Baina, jakina, *darabagu* ez bezala, *zeniezazkigukete* egiazko aditz bezala sortua da, *zenizkigukete* izan litekeen bezala. Eta hau bezalakoa litzateke *zenigukete* edo *zeniguten*. Hortaz, non dago *zeniezazkigukete* horren akatsa? Salaburuk aipatzen dituen trabetan, hain zuzen. Zer egin orduan? Euskara batuko adizki izaeraz jantzia ageri da hor zehar dabilzan paradigma guztietan, nahiz eta inork ez duen erabiltzen, corpusek erakusten duten bezala. Esango nuke, hala ere, aditz batuaren zerrendetan ageri bada, badagoela nonbait eta badela. Baina inor ez dago behartua erabiltzera. Eta pentsatzekoa da, halaber, inork ez duela erabili ez erabiliko ere. Idatziz betiere errazago litzateke, baina testu idatzi hori norbaitek irakurri behar badu, jendaurrean adibidez, hobe, *izki*, *gu* eta *ke* artean ito nahi ez badugu, beste bideren bat hartzea: hasteko datiboa bera ordezkari daitezke modu askotara. *Eraman* aditzarekin, adibidez errazago gertatzen da *X-entzat* edo *X-ra* erabiltzea. Horrek adizkiari pisu dezente kenduko lioke. Ahalezko forma denez, gainera aditz analitiko bat osatu beharrean perifrasi modura ere saia gaitezke *ahal*-ez baliatuz: (*zuek*) *eraman ahal(ko) zenioke!* *Andonirengana eraman ahalko zenukete*.

Atal honen izenburuan beste aditz bat ere ezarri dugu: *nirudike* nahiz *nirudien*. Hau ez *darabagu*-ren antzeko aditz fantastikoa, izatekotan ere aditz ‘fantasma’ litzateke, aurrekoa bezala. Honek, noski, egitura eta itxura soilagoa edo sotilagoa du, baina lehenbiziko aldiz aditz zerrenda batean lekua bazuela ikusi nuenean zer demontre izan zitekeen ezin asmatu ibili nintzen. Gero *zirudien*, *dirudi* eta holakoen ‘arrimuan’ zentzua hartzen joan zen. Hala ere, kontrabandoko adizkia dela esango nuke. Nire euskaraz behintzat hirugarren pertsonako subjektua eskatzen du eta ergatiboa, *horrek* adibidez: *horrek inozoa dirudi* ‘inozua ematen du’. Gaurko gramatiketan, aditz inergatiboa dela esango genuke, beharbada. Alegia, subjektu ergatiboa eta objekturik gabea, *ira-*

kin-en antzekoa. Dena dela, *iruditu* aditzaz ari al gara? Ezetz uste dut. *Iruditu*, *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, ‘zaio’ motako aditza da. *Irudi* aditza, ordea, ez da ageri hiztegi horretan, nahiz eta aditz batuaren paradigmatan ageri-agerian dagoen. Beraz, aditz defektibotzat hartua izatea merezi luke, beharbada. Baina ez hiztegian ‘falta’ delako, baizik teorian izan beharko lituzkeen forma batzuk ez dituelako: *dirudi*, *zirudien* bai, baina agian ?*dirudit* edo ?*nirudien*/*nirudike* modukoak handiegi gelditzen zaizkio hain aditz kokorrari. Zerbaitengatik du aldamenean gure zerbitzurako eman aditza bera: *apaiza dirudit/nirudien-en ordez, apaiza ematen dut*. Gauzak nik uste bezala izatekotan, zerrenda zuzentzea eskatuko luke. Euskara ikasleek merezi dute horrenbeste.

Gauza bera gertatzen da *iraun* aditzarekin ere. Hau inergatiboa dela argiago dago, *irakin* bezalaxe. Ez bataz ez besteak ez du objekturik onartzen: **zer iraun duzu?*! **bost urte hauek iraun ditut* (baina bai *bost urte hauetan iraun dut*). Beharbada, *irudi*-rekin gauza ez dago hain garbi, zeren *mutil honek {zuhurra/ gure aitona...} dirudi* zuzenak dira, baina *zuhurra* eta *gure aitona* sintagmak hemen ez dira objektu, izen predikatu baizik. Hortaz, *irudi* eta *iraun-en* paradigmak berrikusi beharko lirarteke eta dagokien lekura bidali.⁷

Beste kontu bat: EKARRI, ERAMAN aditzen berririk ez da ematen ‘alegiakzo’ formetarako EGLU II-n. Pentsatu nahi dut Euskaltzaindiaren arauan ere agertzen ez delako dela. Baina, neure harridurarako, EBE-n nola edo hala jasoak ageri dira. Hori bai, inolako azalpenik eman gabe. Bide horretatik segituz gero sor dezakegun nahaste-borrastea handia izan daiteke. Eskerrak adizki konplexu horiei inork ez diela begiratu ere egiten, nonbait. Konplexutasunaren konplexuak ez du, antza, hainbesteko indarrik. Baina balizko irakurleari esan behar diot, *nirudien* edo *nirudike* ez bezala, *balekar*, *lekarke* eta antzekoak norbaitek erabili dituela idatziz. Beraz, EBE-koei zorianak, gehiegi luzatu ez badira ere azalpenak emateko orduan.⁸

Azken hitza: errefraura berriro

Gaur hasierako errefrau hori honela parafrasea genezake beharbada: «Ai ederragoa balitz ... eta ez ona» edo «Ai ederragoa balitz ona ez izan arren», «ederra nahiago, ona baino», alegia. Hau euskararekin zenbaitek duen maitasun harremanari aplikatu ahal zaiola iruditzen zait: euskara maite bide dute, baina ez ona delako edo delakoan, duen edo dukeen edertasun miresgarriagatik, nahiz eta praktikan, oharkabean bada ere, ez duten ezertarako nahi, ez behar. Euskaraz bizi nahi dugunok ‘eder eta on’ nahi genuke gure hizkuntza, bi kualitateak bat eginik. Zenbat bider kontatu ote zigun Patxi Altunak Azpeitian ezagutu zuela mutiko bat, zeharoko ergela nonbait, eta buruari bi eskuez heldurik honela esaten omen zuena betiere: «Ai tontoagoa banintz!» Itxura horretako esaldia dugu izenburu gisa hautatu dugun errefrau hori. Baina euskararen kasuan, eta munduko hizkuntza guztien kasuan ere, honela bihur genezake errefrau hori: *euskara ailitz ederra, ona eilitz*. Edo gaurko euskaraz, *ai ederragoa balitz, eta bertute handiagokoa!* Eta *ailitz* moduko adizki zaharkitu batek hizpide eman badigu, gure taulan eskuineko zutabearen kokatu beharko genuke, alegia: «IZAN-en adizki sintetikoa, balizkoa, aspektu-markarik gabea, 3. NOR singularra...». Luzetxo, agian. Ea noiz hemen hizpide izan ditugun adizki motentzat ere izen egokiak aurkitzen ditugun.

⁷ EBE-n hemen zalantzan jarri ditudan hiru aditzon paradigmatetik bat bakarra jasotzen da: *iruditu*-rena. Baina gorago esandakoaren arabera, *irudi*-rena beharko zukeen. Edo, beharbada, *irudi izan* moduko sarrera bat beharko luke, *nahi izan*-en parekoa. Ez dakit. Nolanahi ere, defektiboa litzateke.

⁸ Baina noraezean bezala ibili naiz EBE-ren informazioarekin. Izan ere, LEKARKE moduko ‘alegiakzoei’ leku egin ostean, IHARDUN-en kasuan ez dute ezer jartzen. Justu EGLU II-ko jokabidearen kontra, hemen LIHARDUKE modukoak jasotzen baitira baina ez *lekarke* modukoak (238-240 orr.).

Eta azken burutazioa: *ailitz*, *ailu* modukoak zaharkituak bide dira eta bazter utziak. Ez ahal zaigu geuri ere gertatuko aditz ‘botibo’ hauei gertatua! Hots, zaharraren zaharraz baztertu eta ahaztu. Adizki zaharrak dira, baina gaurko idazle batzuek erabili izan dituzte (*Ereduzko prosa gaur-en* egin daiteke bilaketa). Ez zait gelditzen azkenean honako hau esatea baino: *Aikina gazte, euskara bezala: urtetsu baina bizi*.

Bibliografia

- Allieres, J. (1983): «De la formalisation du système verbal basque», *Piarres Lafitte'ri omenaldia IKER 2*, Bilbao, 37-91.
- Altuna, P. (1971): *Euskal Aditza. Batua? ... Baturakoa*. Etor, Bilbao.
- Amuriza, X. (2010): *Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Lanku, Oiartzun.
- Butron, J & J. De Pedro (1988): *Euskal Gramatika Praktikoa*. Erein, Donostia.
- Euskaltzaindia (2012): *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak ea adibideak*. Euskaltzaindia, Bilbao.
- Euskaltzaindia (1987): *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*. Euskaltzaindia, Bilbao.
- Euskaltzaindia (2018) :*Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE)*. Euskaltzaindia, Bibao.
- Fernandez, B. (2017): *Euskara eta hizkuntzari buruz. Hizketan semearekin*. Erein Donostia.
- Fernandez, B. (2016): *Euskera para castellano hablantes*. Erein Donostia.
- Lafitte, P. (1944): *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Librairie «Le Livre», Baionne.
- Lafon, R. (1943): *Le système du verbe basque au xv^e siècle*. Berrinprimatua Elkar, (1980). Donostia.
- Moreno Cabrera, J. C. (2000): *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*. Alianza Editorial, Madrid.
- Moreno Cabrera, J. C. (2008): *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Panínsula, Barcelona.
- Porto Dapena, J. A. (1991): *Del indicativo al subjuntivo*. Arco/Libros S.A. Madrid.
- Real Academia de la Lengua Española. (2010): *Nueva gramática de la lengua española. Manual*. Espasa Libros S.L.U. Madrid.
- Rebuschi, G. (1984): *Structure de l'énoncé en basque*. SELAF, Paris.
- Salaburu, P. (2002): *Euskararen etxea*. Alberdania, Irun.
- Zubiaur, J. R. & J. Arzamendi (1976): «El léxico vasco de los refranes de Garibay», *ASJU X*, 47-143. Donostia.